



Zerbitzuaren proposamena
Prozedura: Dirulaguntzen deialdia eta emakida.
Gaia: Etxeko konpostajeagatiko dirulaguntza 2025.

ZERBITZUAREN PROPOSAMENA

Udal honen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan, honako dirulaguntza eta laguntza hauek ematea aurreikusita dago:

DIRULAGUNTZAREN EZAUGARRIAK	Etxeko konpostaia
Gaia	Ingurugiroa (Hiri hondakin solidoen bilketa)
Gunea	Udalerrikoa
Deialdiaren arduraduna	Alkate-Udalburua
Onuradunak	Hiri-hondakin solidoak biltzeagatiko tasari dagozkion ordainagirien titularrak
Xedea	Hondakinak behar bezala kudeatzeko etxeko konpostajeagatiko diru-laguntzak jaso ahal izateko baldintzak arautzea, materia organikoa bereiztea eta konpostaje bihurtzea praktikan jarritz eta, horrela, hondakinen hondar-frakzioa ahalik eta gehien murriztuz. Gainera, gainerako hondakinak (papera, beira, plastikoa, olioak, etab.) behar bezala kudeatu beharko dira.
BDNS Kodea	
Aurrekontu partidaren zenbatekoa	4.000,00 € (1621.481.014)

2024ko abenduaren 05ean, Udalbatzaren ebazpen bidez, Aurrekontua Betearazteko Udal Araua onartu zen. VI. eranskinean, etxeko konpostajeagatiko dirulaguntzak emateko oinarriak onartu ziren.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikularekin bat etorritz, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 58. artikularekin bat etorritz, Zerbitzu honek proposatzen du aipatutako diru-laguntza emateko deialdia onartzeko izapideak hastea.

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

ETXEKO KONPOSTATZEAGATIK DIRULAGUNTZAK 2025